

Xabi Fernández, Ninjutsuko borrokalaria:

“Kirol honetan balio gehiago du indarrak trebeziak baino”

Zazpi edo zortzi urterekin hasi zen Ninjutsu praktikatzen, Kiroldegiko udaleku batzuetan izena eman eta gero. Gaur egun 18 urte ditu Xabi Fernández ermuarrak eta 23 sari eskuratu ditu jada: nazioarteko 11 sari, Espainiako 2, 9 trofeo Euskadi mailan eta bakarra probintzian.

- *Zer dela-eta hasi zinen Ninjutsua praktikatzen?*

Ermuko Kiroldegian zeuden udaleku batzuetara apuntatzeko esan zidan amak, gustatuko zitzaidalako, eta horrela hasi zen dena. Garai hartan nahiko alferra nintzen, eta ez zitzaidan batere gustatzen nekatzea. Denborarekin aldatzen joan nintzen, eta duela lauzpabost urte hasi nintzen beste arte martzial batzuk probatzen, Ninjutsua alde batera utzi gabe.

- *Espainiako zenbat txapelketetan parte hartu izan duzu?*

Espainiako hiru txapelketatan egonda nago, eta ez dira batere errazak izan. Hori bai, garaipenak eta galarak bidearen zati dira, ikasteko balio dutenak, noski. Nazioartean ere lehiatu izan dut.

- *Kirol hau praktikatzeko zer behar da gehiago fisikoa, burua ala biak?*

Fisikoa ezinbestekoa da, baina estrategiak ere beharrezkoak dira, ez dakit esaten zein den beharrezkoena. Baina nire ustez fisikoa da, gehiago balio duelako indarrak trebeziak baino.

- *Bakarrrik entrenatzen duzu edo baduzu laguntzarik?*

Beti izan dut laguntza, maisuak edo ezagutza asko duten lagunak. Ez dut bakarrik entrenatzen beste batekin entrenatzea errazago egiten delako, pikeak sortzen dira, eta gustuko ditut pikeok. Egia da entrenatzeko era jakinda, bakarrik entrenatu izan dudala aurtan, baina kide baten alboan beti.

- *Entrenatzaileren bat gogoan duzu?*

Irakasle asko izan ditut, guk *maestro* deitzen diegu.

Nire *maestro* nagusia, bizitza osoa nirekin dabilena, Juan Carlos da. Nahiz eta gauza askotan aldendu, batera gauden, eta elkarri laguntzeko prest. Ez ditut nire kideak ahazten, asko eskertzen diet eurei ere. Toni Serrapio *maestroari* asko eskertzen diot bere eskua luzatzea eta nigan sinestea. Igorritako balioak bizitzarako ezinbestekoak dira, eskertzekoa da hori guztia. Familia moduko bat osatu da gure artean.

- *Etxeko familiak ere beti lagundu zaitu?*

Baina nire gurasoak ere mirestekoak dira: lehiaketetara eraman, ekonomikoki lagundu... Beti egon dira nire ondoan. Nire lagun minena ere talde honetan sartzen da.

- *Kirol arloan, baduzu momentu bereziren bat gogoan?*



Toni ezagutu nuen eguna. Entrenatzen geundela, borrokan, begian ukabilkada jaso eta kirol hau maite nuela konturatu nintzen. Beste momentu bat ere badut gogoan, lagunarekin Errekaldara joan ginen entrenatzera. Egun euritsua zen, lokatza nonahi. Dibertigarria izan zen, merezi izan zuen!

Amalia Arginzoniz



LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
943 17 47 44



San Pelayo 5, 1º
Ermua (Bizkaia)

Olatz García Arregui

943 17 04 04

OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA

Marfil

Ile-apaindegi bat baino gehiago!!

 Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua



PUB YOMY

Zubiaurre
kalearen
bihotzean

es
egolek

electrizitatea
iluminazioa

M. de Valdespina 14 • ERMUA
943 17 00 61 • egolek@hotmail.com